

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

## **TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK**

Hernaniko Udalak, Ekhilur Kooperatiba elkarteko bazkide laguntzaile izan eta Ekhi moneta soziala martxan jartzeko akordioa hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria izango da Hernanin %100 tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Hernaniko Udalak dirulaguntza egitasmo bikoitza proposatzen du ondorengo helburuak lortzeko:

- 1- Herrian zirkuito ekonomiko itxia sortzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
- 2- Herritarren erosketak ohiturak aldatzea, erosketak herrian egitera animatuz, ekonomia jasangarria bultzatu ahal izateko.
- 3- Komunitatea indartzea (herritarrak, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduaz.
- 4- Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak hobaritu eta sustatuz.
- 5- Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Bi aldeek bat egiten dute ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko jardunean, toki ekonomia indartzeko tresna gisa.

Bi aldeek egoki ikusten dute tokiko moneta sozialaren erabilera sustatzea, kasu honetan Hernaniko Ekhi moneta sozialaren erabilera.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2022ko urtarrilak 27ko bilkuran **GEHIENGOZ** emandako irizpena

Horiek horrela **GEHIENGOZ** hau erabaki da:

1- Tokiko merkataritza, eta ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko tokiko moneta sozialaren erabilerarako dirulaguntza oinarri arautzaileak onartzea.

Kontusaila: 02.481.02.431.00-2021-(6334)

2- Tokiko Moneta Sozialaren erabilerarako Lankidetzak Dirulaguntza Hitzarmena onartzea, Ekhilur

kooperatiba elkartearen alde.

Epea: 1 urte (2022/12/31).

Kontusaila: 02.481.03.431.00-2021-(6753)- Ekhilur Kooperatiba.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa  
Bitarteko idazkaria

Hernani, 2022ko otsailaren 1ean

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3abf49fd-e2c3-4c3f-99dd-f0bb6c3f4af9**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**